INVISIBLE EXPRESS 2026

Demokrazia garai nahasietan

Demokraziak ikuskizunez, desinformazioz, polarizazio politikoz eta herritarren zati baten ilusio galeraz betetako munduan nabigatzen ari dira. Batek baino gehiagok galdetuko dio bere buruari zertarako balio duen demokraziak herritarren beharrei berdintasunez erantzuteko gai ez bada; zertarako balio duen, milioika pertsonarentzat etxebizitza eskuratzea lortu ezin den luxu bihurtzen ari bada; eta hezkuntza, osasun-arreta eta hiri espazio osasungarriez gozatzeko eskubidea baliabiderik ez dutenentzat gainditu ezin diren harresi bihurtu badaitezke.

Europako hainbat hiritan barrena ibiltzea nahikoa da kontraesanak eta: zaindu gabeko zerbitzu publikoak ikusteko; bien bitartean, auzo pribilegiatu batzuk soilik bertan bizitzeko aukera dutenentzako espazio itxi bihurtzen ari dira.

Baina ezin dugu egoera hori tokiko ikuspegitik soilik aztertu. Potentzia handien arteko tentsio estrategikoa gero eta handiagoa den garai honetan, badira beste gizarte batzuen barruan nahigabe soziala, polarizazioa eta mesfidantza elikatzeko interesa izan dezaketen eragileak, gizarte horiek ahultzeko eta aurkariekiko abantaila lortzeko.

Munduan aberastasun material eta ezagutza ugari dago, baina esku gutxitan pilatzen dira. Desberdinkeria horrek eta planetaren gainean gero eta handiagoa den aztarna ekologikoak modu arriskutsuan hurbiltzen gaitu mundu mailako balizko kolapsora, eta demokraziak eta politikak dute korapilo horiek askatzeko giltza.

Baina denak ez du balio; batzuk ikuskizun politiko eta mediatikoa erabiltzen ari dira beren interes berekoiak lortzeko, ustezko errudunak gupidarik gabe seinalatuz edo proposamen sinplistak haizetara botaz, irtenbide magiko zentzugabeekin; beste batzuek, berriz, ekaitzak ereinez, onurak jasotzea espero dute, nahiz eta horrekin politikaren izen ona zikindu, eta horrek herritarren parte hartzeari eta demokraziari kalte egin. Baina sirenen kanta ezti horiek azkenean nahigabe soziala eragin baino lehen, emozio demokratikoak piztu behar dira herritarrengan. Hori da demokraziaren benetako mehatxua: herritarren konfiantza galtzea. Horregatik, premiazkoa da etikaren, berdintasunaren eta herritarren parte hartzearen aldeko apustua egitea.

Demokrazia defendatzea ez da soilik hauteskundeak, erakundeak edo prentsa askatasuna, besteak beste, babestea. Beharrezkoa da herritarren parte hartzea eta konfiantza berreskuratzea.

Demokraziak giza eskubideetan, eta ekitatearen eta justiziaren printzipioetan oinarritu behar du. Erantzukizunez jardutea eskatzen du, orainaldia eta etorkizuneko belaunaldiak gogoan hartuta.

Oso garrantzitsua da, bestalde, planetaren bizitza osoari mesede egingo dion guztion ondasun globalaren ikuspegia sustatzea. Horretarako, gure eskubideak ez ezik, herritar gisa ditugun betebeharrak eta erantzukizunak ere kontuan hartu behar dira.

Duela gutxi, honelako zerbait zioen pintada bat irakurri nuen: «diktadura demokrazian egon daiteke, baina demokrazia ezin da diktaduran egon». Agian, horrek pentsaraziko digu zenbaterainoko garrantzia duen inor atzean utziko ez duten eta planetaren oraina eta etorkizuna kontuan hartuko dituzten balio demokratikoak babesteak.

J. Carlos Vázquez Velasco

Zuzendaria / Director
Kultura Communication Desarrollo KCD ONGD
Festival Internacional de Cine Invisible "Film Sozialak" de Bilbao
director@kcd-ongd.org
Móvil. 00 34 685 80 80 72
Telf. 00 34 94 602 46 68
www.kcd-ongd.org